

## EGKren diseinatzaile gazteen lan poltsan sartzeko baldintzak

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) diseinatzaile gazteekin harremana izan nahi du 2017an sortuko diren lanak antolatzeko. Lan poltsa osatuko da izena eman eta aukeratzeko diren diseinatzaileekin eta urtean zehar, beharren arabera, lanak banatuko dira ekintza bakoitzeko aurrekontu zehatzak adostuz.

### Egin beharreko lanak

Hauek dira 2017an zehar EGK-k beharko dituen lanak diseinuaren arloan:

- EGKren lantalde teknikoak garatutako txostenen maketazio eta diseinua
- EGKren lantaldeen irudia garatzeko marrazki, ilustrazio eta bestelakoak
- Proiektu edo egitasmo zehatzak zabaltzeko irudi sinbolikoak
- EGKren ekintzen zabalpenerako euskarri eta material grafikoak: kartelak, esku-orriak, liburuxkak...
- Kanpaina eta deialdi konkretuak egiteko ikus-entzunezko produktuak.

Portfolian egindako antzeko lanak aurkeztu behar dira

### Balorazioa

Aurkeztu diren proposamenen artean, **aurretik egindako antzeko lanen portfolioa baloratuko da. Parte hartzen duten pertsonak edo enpresek, derrigorrez fakturatzeko gaitasuna izan behar dute.**

Gainera baloratuko da:

- 18-30 urte bitarteko gaztea izatea edo pertsona gazteez osaturiko enpresa izatea.
- Bai gaztelaniaz bai euskaraz (EGA edo parekorik) lan egiteko gaitasuna. Maila altua.
- EGKren kidea den entitate batean egotea edo plataformarekin loturaren bat izatea.
- EGKren estiloa, terminologia eta izaera ezagutzea

### Epeak

Interesa duten pertsonak edo enpresek bere **curriculum** eta **portfolioa** aurkeztu behar dute **2017ko apirilaren 28ko** eguerdiko 12.00ak baino lehen "diseinatzaile gazteak" gaiarekin [komunika@egk.org](mailto:komunika@egk.org) helbidera bidaliz. Proiektuak aztertuko dira eta pertsona guztiei jakinaraziko zaie aukeratuak izan diren ala ez.

Informazio gehiago jakiteko, 943 429767 telefonora deitu edo [komunika@egk.org](mailto:komunika@egk.org) helbidera idatzi (Jon Agirre, EGKren komunikazio teknikaria).